

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Asteazkena, 2012ko urriaren 31. IX. urtea. 2.425. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Hutsuneak hutsune, iritsi da aurten ere Abesbatza Lehiaketa

Bihar hasiko da Tolosako txapelketa; aurten ez da haurren talderik egongo, eta Eslovenia eta Venezuelako abesbatzak ere ez dira etorriko ◦ 4-5



Voces Cantabiles ariko da, lehiaketaz kanpo, azken hutsuneak betetzeko. HITZA



LAGARLANDIA

→ **Arreta koordinatua emateko protokoloa.** Genero indarkeria eta sexu erasoen biktimak diren emakumeei ematen zaien arretaren hobekuntzan protokoloa osatzen ari dira, Tolosan. Hainbat eragile ari dira parte hartzen, eta protokoloa datorren urte hasierarako osatuta egotea espero dutela azaldu dute. ◦ 3

San Martin jaiak ospatzen hasiko dira Amasan eta Alkizan, asteburuan

Larunbatean azoka bereziarekin hasiko dute eguna Amasan; igandean, berriz, bi herrietan, kirola izango da nagusi ◦ 2

AHTaren kontrako baraualdiak egingo dituzte Tolosaldean

Mugitu! mugimenduak deituta Zizurkil, Villabona, Anoeta eta Tolosan egingo dute bat 'AHTak platera hutsik uzten digu' izeneko kanpainarekin ◦ 7

Emakume geroz eta gehiago lanean, Leitzako Sarriopapel enpresan

LAB eta Bilgune Feministaren kanpainari esker emakumeek kurrikulium asko bidali dituzte lantokira eta balantze baikorra egiten dute ◦ 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Hitzaren harpidedunentzat

30 €

Udazken honetan
janntzi HITZArekin!

- Kirola egiteko aproposa den txalekoa
- Barrukaldean fibra mikropolarra
- Paseatzeko aproposa

Egin eskaria:

Telefonoz: 943 65 56 95

edo gerturatu HITZAren Tolosako egoitzara: Araba etorbidea 5, behea



San Martin ospatzen hasiko dira Alkizan eta Amasan

Amasan auzoko jaien egitaraua larunbatean jarriko dute praktikan; Alkizan igandean kirola izango da nagusi

Asier Imaz

Eskualdeko hainbat herritan San Martin eguna ospatuko dute azaroaren 11n. Alkizan eta Amasan, egunari ongi etorria egiten aste-buru honetan hasiko dira. Alkizarrak hiru eguneko jai egitaraua antolatuko dute, eta amasarrek, auzoko jaiak ospatuko dituzte zazpi egunetan zehar, azaroaren 11n samartiñak agurtzeko.

Amasako jai egitaraua larunbatean hasiko da, II. Azoka Bereziarekin. Baserriko produktuak erosteko aukera izango da bertan. Iluntzean, Uxo Toki elkartearen elkartuko dira amasarrek, azokaren inguruan hitz egiteko, eta mondejo afaria egiteko. Iganderako, azaroaren 4rako, Euskal Herriko II. Mendi duatloki zirkuitua antolatuko dute, txirrindulari eta korrikarientzat.

Alkizan San Martin lehen auzotarnak igandean ikusiko dira, kirol ekitaldien eskutik. Goizean VI. Kamioi gurpil igoera egingo dute. Errekalde eta Alkizaren arteko desafioa izango da. Arratsaldean, herriko pilotarien txanda izango da.

↓ Egitarauak

ALKIZA

■ **Azaroak 4, igandea**
11:30. VI Kamioi gurpil igoera: Errekalde- Alkiza.
18:00. Herriko beteranoen arteko pilota txapelketaren finalaurrekoak.

■ **Azaroak 10, larunbata**
16:30. Txerri harrapaketa.
Ondoren. Gizon proba heldu eta haurtzat: Gurpil erraldoi bati ea nork buelta gehiago eman bi minutuan.
21:30. Ostatu jabetxean eskoba txapelketa. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko du.
22:00. Ostatu jabetxean mus txapelketa. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko du.

■ **Azaroak 11, igandea**
10:00. Meza nagusia.
12:00. Gizonezkoen sokatira. Euskal Herriko txapelketaren sailkapenak: 4X4; 340 kilo.
14:30. Ostatu jabetxean bazkaria. Helduek 22 euro eta haurrek 10.
18:00. Herriko beteranoen arte-

ko lau t'erdiko pilota txapelketaren finala.

AMASA

■ **Azaroak 3, larunbata**
10:00-14:00. Amasako II. Azoka berezia.
20:30. Mondejo afaria Uxo-Toki elkartearen.

■ **Azaroak 4, igandea**
11:00. Euskal Herriko II. Mendi duatloki zirkuitua.

■ **Azaroak 7, asteazkena**
19:30. Txupinazoa, Martina Sorginaren jaitsiera, eta buruhandiak.

■ **Azaroak 8, osteguna**
06:00. Gazteen gosaria Ongi Etorri tabernan, trikitilari eta dultzaineroek alaiturik.
14:30. Gazteen bazkaria Uxo Toki elkartearen.
16:30. Soka dantza eta Aurrekua plazan. Ondoren, trikitilarien erromeria.
21:00. Gazteen afaria Iturri Goxo jabetxean.

■ **Azaroak 9, ostirala**
17:30. Irrien Lagunak kanta eta dantza ikuskizuna. Ondoren, txokolate beroa.
20:00. Amasako XXI. Bakailo Lehiaketa frontoian.
23:30. Mozorro gaua. Dantzaldia Ingo al deu? taldearen eskutik.

■ **Azaroak 10, larunbata**
11:00. Ume Krosa 6. mailara arteko umeentzat.
12:00. Erronka: Sandrako behorra Amasako gazteen aurka.
14:00. Herri bazkaria.
18:30. Kantaldia elizan.
22:30. Bertso saioa. Ondoren, dantzaldia Triki ta ke taldearen eskutik.

■ **Azaroak 11, igandea**
10:30. Meza nagusia. Ondoren, proba: asto pareta idian aurka trikitilariak eta bertsolariak alaituta. Bien bitartean, ume jolasak frontoian.
18:00. Herri kirolak herriko gazteen eskutik. Ondoren, Martina Sorginaren agurra eta XXIII. In-txorren aldatzea.

Erretiratuen etxeko taberna-jatetxea kudeatzeko aukera

Eskariak aurkezteko epea luzatzea erabaki du Amasa-Villabonako Udalak, azaroaren 6ra bitarte

A. Imaz Amasa-Villabona

Villabonako Erretiratuen etxean taberna-jatetxea ustiatzeko, kontratazio deialdia egin zuen udalak urriaren 2an. Deialdirako eskaintzak aurkezteko epea amaitu zen, baina udaletik azaldu duteenez, ez du inork eskaririk aurkeztu, eta ondorioz, epea luzatzea erabaki dute.

Interesa dutenek azaroaren

6rako aurkeztu beharko dute eskaria udaletxean, hain zuzen ere, egun horretako 14:00ak baino lehen.

Erretiratuen etxea Villabonako Alude kalean dago, beheko solairuan taberna-jatetxea dauka. Udalak bi urteko kontratua eskaintzen du, urtebetez luzatu ahal izango dena. Kontratuak guztira, luzapenak barne, ezin izango du lau urte baino gehiago iraun.

Argibideak eta agiriak eskuratzeko Amasa-Villabonako udaltxera joan behar da. Informazio gehiago lortzeko, beste aukerak bat 943 69 21 00 telefono zenbakira deitzea da, edo www.villabona.net webgunean sartzea.

Baionako manifestaziora joateko deialdia luzatu du Herrirak

Anoetako Herrirak batzarra egingo du gaur, mugimenduaren ibilbidea aztertu eta balantzea egiteko

A. Imaz

Azaroaren 10ean, larunbatean, Baionan euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko manifestazio nazionala egingo da. Mobilizazioa 15:30ean hasiko da, eta Tolosaldeko Herrirak bertara joateko gonbitea luzatu die herritar guztiei. Autobusez joateko aukera egongo dela azaldu du Herrirak, eta zerrendak, ohiko lekuetan daudela.

Baionako zita oso garrantzitsua dela gaineratu dute preso eta iheslarien aldeko herri mugimendutik: «Espainiar zein frantziar espetxeetan sakabanatuta dauden euskal preso politikoekin esku-

bideak errespetatzea, berehala hartu beharreko neurria izan behar du. Zentzu horretan, euskal herritar orori, izan jatorri edo ideia politiko ezberdinetakoa, bakearen eraikitzaile izatea dagokigu; hau da, Euskal Herrian bakea izan dadin sortzen ari den dinamika herrikoiaren aktore zuzenak izatea».

Tolosaldeko Herriratik, iragan ostiralean, hau da, hileko azken ostiralean egin ziren elkarretaraztean berri eman dute. Hainbat herritako datuak bildu zituzten Herrirakoek, mobilizazioetan parte hartu zuten jende kopurua neurtze aldera.

↓ Datua

AZKEN OSTIRALA

- **Aduna.** 3 lagun.
- **Alegia.** 14 lagun.
- **Amezketak.** 10 lagun.
- **Anoeta.** 38 lagun.
- **Berrobi.** 11 lagun.
- **Berastegi.** 32 lagun.
- **Ibarra.** 55 lagun.
- **Irra.** 20 lagun.
- **Gaztelu.** 16 lagun.
- **Ikaztegieta.** 9 lagun.
- **Leaburu.** 8 lagun.
- **Lizartza.** 39 lagun.
- **Tolosa.** 55 lagun.
- **Villabona.** 84 lagun.
- **Zizurkil.** 47 lagun.

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAERAK

Harakina. Harategietan biltegitik ekartzen den ganadua zatitzeko, harakinak bere burua eskaintzen du. Interesa duen edo nork, del deza 635 74 15 64 telefono zenbakira.

'Pello Lizardira', aldaketa

Pello Odriozola tolosarrak hilean behin elkarretaratzea egiten dute Tolosako Trianguloa plazan, hila beteko lehen ostegunean hain zuzen ere. *Pello Lizardira* ekimena antolatzen duten kideek azaldu dutenez, azaroan eta bigarren egun aldaketa egingo dute. Bi hilabete hauetan, hileko lehen ostegunean elkartu beharrean, bigarren ostegunean elkartuko dira, hau da, azaroaren 8an eta abenduaren 13an. Elkarretaratzea 19:30ean hasiko da.

Pello Odriozola tolosarrak espetxean 24 urte daramatza. 2008an aske gelditu behar zuen, baina 197/2006 doktrina ezarri zioten, zigorra 2018ra luzatuz. Doktrina honen aplikazioa, berriki, Europako giza eskubideen epaitegiak atzera botatzea eskatu zion Espainiari, Ines del Rio euskal presoaren kasua aztertu ondoren.

Anoetako Herriraren deialdia
Urriaren 31n, gaur, Anoetako Herrirak batzarra antolatuko du 19:00etan udaletxean. Bertan, otsailean Herrira mugimendua sortu zenetik hona egindako lanaren eta egungo egoeraren balantzea egingo dute. Batzarraren ondoren, mokadutxo bat jateko aukera egongo da. Anoetar oro gonbidatu dute batzar ireki eta parte hartzaile honetara.





Protokoloaren osaketan ari diren eragileetako ordezkariak izan dira agerraldian. IGL

Erasotuak diren emakumeei arreta koordinatua emateko protokoloa osatzen ari dira

Hainbat eragile parte hartzen ari dira; datorren urtearen hasierarako protokoloa osatzea espero dute

Imanol Garcia Landa Tolosa

Genero indarkeria eta sexu erasoen biktimak diren emakumeei ematen zaien arretaren hobekuntza protokolo bat osatzen ari dira Tolosan, eta horren berri eman dute agerraldi batean. Ekimen horretan hainbat eragilek parte hartu dute: udaltzaingoa, Ertzaintza, Osakidetzak, legegileak, Gipuzkoako Foru Aldundiko larrialdi zerbitzuakordezka-ria, Bilgune Feminista, indarkeria jasandako emakumeak, udaleko Berdintasun saila eta Gizarte Zerbitzuak. Guztiak ari dira protokoloa gauzatzeko lan taldean parte hartzen. Sortzen aholkularitzak dinamizatuta. Agerraldian erakunde horietako ordezkariak izan dira.

Sortzen aholkularitzako Norma Vazquez ari da lan taldea koordinatzen. «Protokoloa genero indarkeria eta sexu erasoen aurrean ematen diren erantzunaren antolakuntza da», azaldu du Vazquezek. «Protokoloa ez da egoera honen irtenbidea, baina pauso garrantzitsua da, hain zuzen, biktimak diren emakumeei ez deza-ten bigarren mailako biktimizazio bat jasan koordinatu gabeko zerbitzuetara jotzen dutenean laguntza bila, eta, beraz, ez dezaten bere historia errepikatu zerbitzu bakoitzera».

Koordinazioa nola arindu daitekeen garatu dute lan taldean,

Vazquezek esan duenez, eta horrez gain «beste zer ekimen egin daitezkeen, ez bakarrik lege arloan edo asistentziaren arloan, baita gizarte mailan ere jendea sentsibilizatzeko emakumeen esku-bideen inguruan eta baliabideek izan ditzaketen mugak». Vazquezek nabarmendu duenez, «oso garrantzitsua da indarkeria antzematea eta salatzea, bai bikote mailan bai beste arloetan ere».

Lan taldeak egin dituen talde-eragileak elkar ezagutu dira, bere eragiteko moduak eta zalantzak elkarbanatu dituzte, zer baliabide dauden eta zeintzuk ez dauden aztertu dute, eta baita hauen mugak ere, eta hori guztia komunean jarri da protokoloa osatzeko. «Lanaren lehenengo partea bukatu dugu, hau da, prozesu guzti hauek elkarbanatzea», zehaztu du Vazquezek. «Aurrera begira beste pauso batzuk egin behar ditugu, hau da, antolatzea, idaztea, eztabaidatzea eta horren ondoren protokoloaren parte diren erakunde guztiei banatzea. Konpromisoetako bat da erakunde guzti horietako kideek protokoloa ezagutzea, eta herritarrei ere bideratzea, indarkeria jasaten duen emakume batekin harremanetan dagoen orok jakin dezan zein neurritan dagoen erantzun koordinatu bat erakundee-tan». Protokoloa datorren urtearen hasierarako osatuta egotea espero dute.

Etengabeko ebaluazioa

Ibai Iriarte alkateak azaldu duenez, «gero jarraipena egin eta etengabeko ebaluazioa egin behar da, eguneroko lanetarako erakutsiko digulako zer hobetu behar den». Iriartek gaineratu duenez,

«udal honetan sartu ginenean lehentasunezko gai bat zela esan genuen eta horretan jarraitzen dugu. Behin baino gehiago esan dugu, herritarren erdia bigarren mailakoa izatea ez da bidezkoa. Beraz, egiturazko aldaketak eman behar dira, eta kasu honek, administrazioen arteko elkar-eraginak hobetu behar dira erasoak jasaten dituzten emakume hauei ahalik eta arreta hobere-na, gertukoena eta koordinatuena emateko».

Udalak bultzatuta beste mahai batzuk eta beste lanketa batzuk egiten ari direla generoari dagokionean esan du Iriartek: «Hor dago orain gutxi aurkeztu dugun hezkidetza mahaia. Bertan haurrekin baloreetan, oinarrietan, lan egin nahi da. Sentsibilizazio kanpainak ere bultzatzen ditugu eta Beldur Barik hor izango genuke, edo urtean zehar dauden egun ezberdinetan egiten diren ekintzak, martxoaren 8an eta azaroaren 25ean, esaterako». Protokoloa azkeneko puntua izango litzatekeela esan du Iriartek: «Erasotua izan den emakume horri ahal den arreta egokiena eskaintzea».

Iriartek agerraldian izan diren guztien parte hartzea eskertu du, eta bereziki zoriandu ditu emakumeen taldeak eta mugimendu feminista: «Egun administrazioetan eta udaletan inoiz baino gehiago hitz egiten da genero politikaz, eta hau isilean mugimendu feministak urteetan egin duen borrokarri esker da; agenda politikoan gai hau sartzea lortu dute». Iriartek gaineratu duenez, protokoloaren helburua «arreta integral bat lortzea» da eta hori posible izango da «denak batera egiten badugu».

Itzulpengintzako Euskadi Saria, Xabier Olarrarentzat

Arantzazu Royorekin batera jaso du saria tolosarrak, 'Jakobian eraikina' liburua itzultzeagatik

I. Garcia Landa Tolosa

Xabier Olarra tolosarrak eskuratu du itzulpengintzako Euskadi Literatura saria, Arantzazu Royorekin batera. Alaa Al Aswaniren *Jakobian eraikina* lana (Ige-la) itzultzeagatik jaso dute 18.000 euroko saria. Koran liburuaren ondoren, arabieraz idatzitako libururik irakurriena da *Jakobian eraikina*. Epaimahaiaren iritziz, «hizkuntza kalitate oso ona» erakusten du euskarazko itzulpen lan horrek. «Hizkera aberats eta jorria nabari daiteke testuan. Ederki josi dute itzultzaileek euskaraz pertsonaia ezberdinei buruzko zatitxo osaturiko puzzlea», gaineratu du epaimahaiak.

Betalde, itzultzaileek Egiptoko kultura Euskal Herrira gerturatzeko ahalegina egin dutela azaldu du epaimahaiak. «Azpimarratzekoa da jatorrizko testua arabieratik euskarara zuzenean ekartzearen meritua. Itzultzaileek duintasunez gaingitu dituzte arabieratik euskarara itzultzeko zailtasunak». Jatorrizkoan agertzen diren pertsona eta toki izenak euskarara egokitzeko egindako ahalegina ere nabarmendu du epaimahaiak.

Xabier Olarrak urte asko dara-



Xabier Olarra. J. SAIZAR

matza itzulpengintzan eta aurretik jaso zuen itzulpengintzako Euskadi Saria. 2006an izan zen, Raymond Queneauren *Estilo arketak* liburuarengatik. Liburua 2005. urtean berak beste bi tolosarrekin 1989an sortutako Igela argitaletxean argitaratu zuen, aurtengo lan saritua argitaratu duen argitaletxe bera.

Sari banaketa, azaroaren 14an

Olarra eta Royorekin batera, Iban Zalduek euskarazko haur eta gaztea literatura saria eskuratu du, Iban Barrenetxeak gaztelaniazko haur eta gazte literatura saria, Sara Morantek literatura lanaren ilustrazio saria, Inazio Mujikak euskarazko saiakera saria eta Daniel Innerarityk gaztelaniazko saiakera saria eskuratu du. Bi sari falta dira, poesia eta narrazioa, eta gaur jakingo dira. Sariak azaroaren 14an banatuko dituzte Euskal Herriko Unibertsitateko Paraninfoan.

Abaltzisketatik Igaratzara mendi irteera antolatu dute

Igandean, 08:30ean abiatuko dira, eta ondoren bazkaria izango da; interesatuek izena eman behar dute

E. Maiz Abaltzisketa

Igandean, hilak 4, Abaltzisketatik Igaratzara mendi irteera egingo dute. Larritzeko langatik 08:30ean aterako dira, eta Igaratzatik buelta egin ostean, Abaltzisketako pilotalekuan bazkaria egingo dute. Abaltzisketako Udalak, Logikaline enpresak eta Ara-

larko Adiskideak elkarteak antolatuko dute ibilaldia.

Parte hartu nahi dutenek, aldeztu aurretik izena eman beharko dute. Horretarako, 646 28 42 42 (Jon) edota 676 92 96 60 (Juan Mari) telefono zenbakietara deitu beharko da. Izena ematen dutenean 10 euro ordaindu beharko dute, egunean bertan bazkaldu ondoren.

Ibilaldiaren erdi bidean, Igaratzan, 11:30ak aldera hamaiketako egingo dute. 14:30erako, berriaz, buelta egitea aurreikusten dute. Eta bazkarian, ardia izango dute bazkaltzeko.

oalegaldea@hitza.info

ABESBATZA ZALEEN NAHITAEZKO GELTOKIA

Itza Urkizu
 Bihartik aurrera, eta igandera bitarte, mundu osoko hamabi abesbatza hartuko dituzte Tolosako oholtzak.

Murriazteko eta kristiak markatutako lehiaketa izango da aur-

tengo, haur abesbatzen lehiaketa entzutea antolatzetik ez baitute izan. Hala ere, kalitate eta mihia handia izango dela ziurtatu dute.

Horrela beraz, Indonesiatik, Erresuma Batutik, Finlandiatik, Letoniatik, Irlandatik, Ukraina-

tik, Frantziatik, Finlandiatik, Alemaniatik eta AEBetatik etorriko diren hamar abesbatza.

Javier Busto lehendakariaren hitza, Brady Alred, Lorenzo Donati, Naomi Faran, Robert Nand, Victor Stoinov eta Fritz Weyren lana izango da, 44

abesbatza Lehiaketako sari nagusiaren irabazlea zein den erabakitzea, eta larunbat gauaren egugarritasunak.

Aipatzekoa da, azken orduko aldaketa batzuk izan direla, Eskoziako eta Venezuelako abesbatzak erin izango baitute Tolosara

bidaia, osasun eta administrazio arazoak medio.

Antolatzaileek, honen aurrean, bihar, 16:00etan, izango den sasoan aldatzeko erabakia hartu dute. Voces Cantabiles sorrerikote britainiarra arloko da, horrela, lehiaketaz kanpo, emandakoa.



DAARLEN VOCAL CONSORT
 • **Alemania.** Hiru emakume eta hiru gizonen osatutako ahots taldea da, eta Georg Grün da zuzendaria. 2008an sortu zuten taldea Saarloucken ganbera abesbatza 8 kideek, bekarleri erreportorioa osatzeko helburuz, eta 2010. urtean beren lehen diskoa argitaratu zuten: *geroetik*. Europa osoan zehar aritu izan dira. Musika sakratuan eta profanoan arloko dira larunbat goizean nahiz arratsaldean.



VOCAL ENSEMBLE RES MIRA
 • **Finlandia.** Lau emakume dira a cappella abesten duten Helsinki talde honetako kideak. 1997an sortu zen, eta Raisa Lahtiranta da zuzendari artistikoa; abeslari profesionala da.

bera. Erreperitorio zabala duten arren, areta berezia eskaintzen diote finlandiar musika garaikideari. Santa Klara elizan arloko dira, larunbatetan, 11:30ean, musika sakratuaren salbira. 16:00etan, beriz, Leidoreko oholtzan arloko dira musika sakratuko sasoa.



ENSEMBLE QUARTONAL
 • **Alemania.** Ahots talde honetako lau gizonen osatutako haur abesbatza kide ohiek dira, eta 2006an sortu zuten taldea. Adituek diotenez, a cappella abesbatzen artean etorkizun osoa du. Haur abesbatzaren bidez Tolosan lehen ere izandakoak dira abeslariak, eta aurten egin dira ezagun nazioartean. Musika sakratuan eta profanoan arloko dira, larunbat goizean Santa Klaran, eta arratsaldean Leidorean.



THE ROSE ENSEMBLE
 • **AEB.** Gaur egun zuzendaria den Jordan Sramek-ek sortu zuen taldea 1996an, eta musika interpretatzeko modu berezia du, ipuin eta kondarekin uzartuz. 2007. urtean ere parte hartu zuten Tolosako Abesbatza Lehiaketan, erlijio musikaren lehen saria eta musika profanoaren bigarrena eskuratu. Larunbatetan ere sail hasietan arloko da talde estatubatuarra, Santa Klara eta Leidor aretoko oholtzetan.



UNIVERSITY OF THE VISAYAS CHORALE
 • **Filipinak.** 1999an, Visayas-eko unibertsitateko ekitaldietan abesteko helburuz sortu zuen abesbatza Jose R. Gulas doktorek, 2007an, ordea, egungo zuzendaria Anna Tabatik buztada handia eman zion taldeari, eta hainbat sari jaso dituzte orduz geroztik, batez ere, Filipinetan bertan. Polifonia eta folklore salietan nahiz musika sakratuan eta profanoan arloko da taldea lehiaketan.



MIKROKOSMOS
 • **Frantzia.** 18 eta 30 urte bitarteko 36 gizon-emakume dira talde honetako abeslariak, eta Loïc Pierre sortzailearen zuzendatzepean, abesbatza musika

lanean arituz. Altxeriko herri musika nahiz frantziarra biltzen dute, eta musikagile berri hauek egiten dizkieteko konposaketak. Horrela beraz, askotariko da Quatuor Meliades-en erreperitorioa. Musika sakratuaren eta musika profanoaren salbira lehiatuko dira, larunbatetan kantatuz.



karen ohiko mugak gainditzen dituzte emandakia. Erreperitorioa bertzea atsegin dute, eta hainbat sari jaso dituzte Europan barrena. Polifonia eta folklore musikaren salbira lehiatuko dira, etzi, 19:30ean, Leidor aretan.



NEW DUBLIN VOICES
 • **Irlanda.** Irlandako ganbera abesbatzen artean aitazindaria da, eta sartuenerakoa ere bai. 2005ean sortu zuen Bernie Sherlock zuzendaria, eta Eidi Aroko musika nahiz garaikidea iroratzen dute; baita egungo musikaren obrak ere. Polifoniar eta folkloren arloko dira, bihar, Leidorean.



THE LATVIAN VOICES
 • **Letonia.** Zazpi emakume hauek ez dute estilo zehatz bat, eta musika folk-nahiz swing-a abesten dute emanaldietan. Euren ahots garbi eta naturalak dira duten anaiakosten gaitia. Musika sakratuan arloko dira, bihar, 11:30ean, eta musika profanoan, 16:30ean, ostiralean, Leidor aretoko oholtzan.



APOLLO
 • **Erresuma Batua.** Duela bi urte sortu zuten taldea Londresean, eta segituan jaso zuten errekonozimendua. Abeslariak profesionalak dira, eta erreportorio zabala dute. Voces Cantabiles Music Fundazio barmuko taldea da, eta musika sakratuan eta profanoan arloko dira.

Javier Busto • Epaimahaiko lehendakaria

«Hezkuntzan kantua sartzen ez bada, hemen abesbatzek etorkizun beltza dute»

L. Urkizu
 Meliki ikasketak dituen arren, musika treskuntzan autodidaktak izan da Javier Busto (Hondarri-ba, 1949).
 Hondarribiko Eskifia abesbatzaren lehenengo saria eskuratu du lehiaketa eskotan, eta aurten ere, Tolosan kalitate handia izango dela dio.
Murriazteko izan dira, aurten, lehiaketaren inguruko berriak nabarmenenak. Zer diotuz honen inguruan?
 Kristiak eragin nabarmena izan du. Lehiaketa sartzen garen gutxiotzat, haurren lehiaketarik ez egitea oso gogorra izan da. Sarre-rik salgai jarri zirenean, beti haurren sariak sarerik ematen dira lehenengo, eta Leidor aretoa beteta, eta abesteko gizona zuten haurrik kutsua oso gogorra izan. Eta aurten gozosa tristea izango da.

Aurrekontu xumeagoa izan den arren, kalitatean abesbatzak entzun ahal izango dira?
 Nik baxetz ueste dut, Tolosan beti oso zaindu izan beha berri. Abesbatza bidualak dator, eta epaimahaiko lehendakaria naizen alde-rik tritzi zehatzik eman erin duen arren, maila altua izango da.

Nazioarte mailan garrantzia du lehiaketa. Nolako da epaimahaikaren lana?
 Talde bakoitzaren emandakia 100 punturen gainean egaitzen dugu, eta puntuaziorik altuena eta baxuena kendu ondoren, beste bost puntuazioen batzabeskoa egiten dugu. Gure lana abesbatzen orkestra berritzea da, eta abesbatza ondo bai egiten duten edo ez ikustea. Ondo sifinatua behar dute, eta musikaren estiloa eta elegantzia ere kontuan hartzen ditugu.

Ikus-entzuleen itzulia ez da beti zurekin bat etortzen.
 Ez, bai, hori oso da. Izan ere, epaimahaikoen partiturrak izaten ditugun arren, eta publikoak ez. Ordhan, gerta daiteske abesbatza bat oso musika ona egiten ari-tesa, eta abesten ari direnak entzuleak hunkitzen. Baina partituran jartzen duenarekin bat ez badin beldor, puntuak kentzen ditu borrek. Hala ere, egi da zeh- bait urtetan gure erabakia bat etortu izan dela publikoarenare-kin.

Aurten ez da musika talderik izango. Nola ikusten duzu abesbatza musika Eskifia Herrian?
 Egia esan, ni oso ezkorra naiz kontu honetan. Zuzendari eta lid-derrik falta dira, eta etorkizun zaila ikusten dut. Gaur egun zaila da abesbatza baten diziplina sartzea, eta ikasketetara, derri- gorrerako hezkuntza kantua sar- tzen ez bada, hemen abesbatzek etorkizun beltza dute.



CREDO
 • **Ukraina.** 2002an sortutako abesbatza honek, melomano- en areta pletu zuen hasieratik, eta kritika paregabekiz jaso izan dituzte beti. Ukrainako kultur



MARANATHA CHRISTIAN UNIVERSITY
 • **Indonesia.** 1983an hasi zen abesbatza honen ibilbidea, eta unibertsitateko ikasleek eta ikasle ohiek abesten dute. Indo- nesia abesbatza onenetariko- en artean dute kritika, eta adierazlan parte hartu duten lehiaketetan lehen sariak esku- ratu dituzte. Sail gutxietan parte hartuko du 36 gizon-emaku- mek osatutako talde honek.

Egin HITZako harpidedun azaroren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

OPARI

eta

... HITZaren harpidedun artean bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje goetermalak (30*) + jacuzzi sesioa zozkatuko dugu

hitza harriemantzarako: 902 80 02 01 harpidetza@hitza.info



Leitzako lantegirik handiena da Sarriopapel. A. IMAZ

Sarriopapel lantegiko kontratazioen inguruko balantze baikorra egin dute

Leitzako LAB eta Bilgune Feminista «gustura» daude, geroz eta emakume gehiago kontratatzen dituztelako

Iñigo Terradillos Leitza

Leitzako LAB sindikatua eta Bilgune Feminista balantze baikorra egin dute aurtengo kurrikulum bilketaz eta azken hilabeteetan zehar Sarriopapel lantegian eginiko kontratazioen inguruan. Izan ere, geroz eta emakume gehiago ari direla kontratatzen eta euren profila anitza dela adierazi dute.

Duela bi urte hasi ziren Sarriopapel lantegian emakumeak kon-

tratatzeo kurrikulum bilketa egiten. Hala, Leitzako lantegirik handiena denean urtetik urtera emakume gehiago kontratatzen hasiak direla azaldu dute, «elkarlana, antolakuntza eta borrokaren bitartez». «35 urtez ukatua izan dugun sarbideari ateak ireki eta duintasunez bertan lan egiteko promesak erreal bihurtzen ari dira», gehitu dute.

Eman dituzten datuen arabera, egun, Sarriopapel lantegiak 354 langile ditu, eta 46 aldi baterako lan enpresa bidez kontratatutak dira. Ekainean 49 kontratu egin zituzten, eta horietatik 15 emakumeenak ziren; uztailan ere 49 pertsona kontratatu ziren, eta 13 izan ziren emakumezkoak; abuztuan datu horiek errepikatu ziren, eta irailean 46 izan ziren kon-

tratazioak, emakume kopurua berbera izan zelarik. Urrian, berriaz, 43 kontratu egin dituzte, eta 13 izan dira emakumeei eginikoak. Horiez gain, 11 errelebu kontratu egin direla esan dute, eta kasu horretan, 2 izan direla emakumezkoenak.

LABek eta Bilgune Feministak azaldukoaren arabera, aldarrikapenak errealitate bihurtu daitezkeenaren erakusle da Sarriopapel lantegian eginiko borroka. «Etsipenetik ateratzeko ateak ireki zaizkigu emakumeoi, nahiz eta, oraindik lan asko dagoen egiteko bai Sarrion bertan eta baita herrian ere». Hala, «kontzientziak astintzen eta prekarietateari aurre egiteko lanketa desberdinak abian jartzen» lanean jarraituko dutela adierazi dute.



Ibarrako udaletxea. R. CALVO

Udaletxean aurkeztu ahal dira erakundeei zuzendutako agiriak

Ibarrako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu dute; zerbitzu telematikoa laster izango da abian

I. Terradillos Ibarra

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari zuzendutako agiriak Ibarrako Udal erregistroan aurkezteko aukera izango dute ibartarrek aurrerantzean. Ibarrako Udalak hitzarmen bat sinatu berri du Eusko Jaurlaritzarekin, eta lankidetzara horri esker posible izango da zerbitzu hori.

Hitzarmen honen helburua herritarren eta erakunde publikoen arteko harremanak erraztea da. Herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko erakundearen edozein organo edo erakunderi zuzendu nahi dizkieten eskaerak, idazkiak edota jakinarazpenak Ibarrako Udalen erregistroan aurkezteko aukera izango

dute. Udalak bere erregistroetan sarrera emango die agiri horiei, eta beranduen handik bi egunera dagozkion organo edo erakundeei bidaliko die.

Beraz, ez da Donostian edo Bilbon kokaturiko erakundeen egoitzetara joan beharrik izango, nahikoa izango da Ibarrako udaletxera jotzearekin. Ibartar orok izango du zerbitzu hori erabilteko aukera.

Zerbitzu telematikoa abian

Bestalde, laster izango da Ibarrako Udalen zerbitzu telematikoa martxan. Zerbitzu horri esker, ibartarrek euren etxeetatik egin ahaliko dute hainbat dokumenturen eskaera, errolda, esaterako. Horretarako, nahikoa izango da Ibarrako udaletxera joan, eta sarbiderako kodea eskatu. Ibarrako Udalen web orrian kode horren bitartez herritarrek euren datuak ikusi ahaliko dituzte, eta hainbat dokumentu etxean bertan lortu, udaletxera joan beharrik gabe. Abendurako martxan izango dela aurreikusi dute.

→ Laburrak

San Bartolome jaietako argazki erakusketa ikusgai

IBARRA › San Bartolome jaietako argazki erakusketa ikusgai Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean. Kultur sailak 850 argazki inguruko bilduma osatu du azken jaietan eta horietatik 450 inguru jarri dituzte erakusketan. Nahi duenak argazkien kopia eskatzeko aukera ere badu, kultur etxeko harreran, 0,50 euroren truke. Gaur izango da erakusketa ikusteko azken eguna. Goizez nahiz arratsaldez bisitatu ahaliko da.

Garagardo Pesta izango da Torrean, azaroaren 17an

LEITZA › Garagardo Pesta egingo dute Torrean azaroaren 17an, 14:00etan hasita. Hamargarrenez egingo dute aurten, eta dagoeneko bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte. Saltxitxa alemaniarak, patatak purearekin, txekor saiheksia letxugarekin, limoi eta kaba sorbetea, kafea eta kopa sartzen dira bazkarian. Txartelak 28 euroan eskura daitezke Torrean, eta azaroaren 16a baino lehen erosi behar dira. Garagardo mota ugari probatzeko aukera izango da, eta zuzeneko musikaz ere gozatu ahaliko da, izan ere, 23:00etan Nats & Wats taldearen kontzertua izango da.

Gazteentzako etxebizitzaren inguruko galdetegia

IBARRA › 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat apartamentu dotazionalak alokairuan jartzeko egitasmoa du Ibarrako Udalak. Beheko Biden bukatzearen erakinean egokituko dituzte 32 apartamentuak. Bada, etxebizitza horietan interesa duten herritarrek galdetegia bete beharko dute. Kultur etxean, udaletxean edota udalaren web orrian eskura daiteke, eta ondoren kultur etxean edo udaletxean utzi beharko da. Gaur izango da horretarako azken eguna. Galdetegiko emaitzak aztertu, eta ondoren zozketaren nondik norakoak zehaztuko ditu Ibarrako Udalak.

Narbaitzuko kobetara joango dira orexarrak

I. Terradillos Oresa

Orexako kultur hamabostaldien barruan *Gazta zati bat* dokumentala izango da gaur ikusgai udaletxeko ganberan, 21:30ean. Jon Maia dokumentalaren egilea izango da bertan, gainera.

Bestalde, bihar Narbaitzu eguna izango dute. 11:00etan abiatuko dira Narbaitzu aldera, eta bertako kobak bisitatu dituzte. Eneko Maioren alkateak dioen moduan, «askok ez dakite Oresa kobazuloak ditugunik, eta ibilaldi

hau eginez, ezagutarazteko aukera dugu». Kobetan gaztak jarri zituzten ontzen hainbat herritarrek, eta horiek aterako dituzte, eta dastatuz afari merienda egingo dute.

Ezti, 22:00etan *Kabaret antzez-lana* izango da ikusgai, Urratx taldearen eskutik, eta larunbatean, azken egunean herri afaria egingo dute. 100 lagun inguru espero dituzte, eta udalak baso eta plater berrerabilgarriak jarriko ditu. Gari eta Inakiren eta DJ Bullen musikak giroa dute gaua.

Tolosaldeko autobus zerbitzua osatzeko prosezua ireki dute

Herritarren ekarpenak jaso nahi ditu Tolosaldea Garatzenek; azaroak 25 da iritziak emateko azken eguna

Rebeka Calvo

Tolosaldea Garatzen Tolosaldeko garraio publiko sistema hobetzeko abiarazitako prozesuarekin jarraitzen du, eta oraingoan autobus sistema propioa osatzeko garaia heldu da. Horretarako herritarren iritzi eta iradokizunak jaso nahi dituzte, «mugikortasun beharrei erantzun egokia» eman ahal izateko. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolosaldea Garatzen eta udalen laguntzarekin, eskualdeko garraio proposamen berria diseinatu du jada eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere atera dute.

Autobus zerbitzu erosoa

Tolosaldea Garatzenek azaldu duenez, eskualdeko udalek, mugikortasun eredu iraunkorrak sustatzeko politikak garatuz, garraio publikoari arreta berezia emateko konpromisoa hartu dute, horrela «autobus zerbitzu erosoa, egoki eta erabilgarri bat» lortzeko. Horrengatik, garraio sistema proposamen berria eskualdeko errealitateari egokitu nahi dute eta mugikortasun beharrei erantzun egokia eman die-

zaien, garapen agentziak parte hartze prozesu bat abiarazi du, udal, herritar, enpresa eta eragile-irritziak eta iradokizunak jasotzeko.

Prozesuan parte hartzeko hiru bide ireki dituzte: Tolosaldea Garatzena bertara jotzea, eskualdeko udaletxeetara gerturatzea edota parte hartze bileretara joatea. Iritziak jasotzeko azken eguna azaroaren 25a izango da.

Tolosaldea Garatzena jotzen dutenek, www.tolosaldeagaratzen.net helbidean edo bulegoetan (Tolosako San Esteban auzoa, 20) Tolosaldeko garraio publikoaren proposamena izango dute eskuragarri, hau da, eskualdeko autobus zerbitzuak egingo dituen ibilbideen mapa eta ordutegiak ikusi ahal izango dira. Gainera, iritziak jasotzeko orriak *on line* eta paperean egingo dira herritarren eskura.

Eskualdeko udaletxeetan ere informazio bera eskuratu daiteke eta bertan ere elkarpenak egin

↓ Nola parte hartu

- **Tolosaldea Garatzen.** www.tolosaldeagaratzen.net webgunean edo bulegoetan.
- **Eskualdeko udaletxeetan.** Udal bulegoetan edo udaletako webguneetan.
- **Bilerak.** Landa eremutan bilerak egingo dituzte, eta zehazturik dituzte datak.

ahal izango dira, *on line* udaletako webguneetan edo udal bulegoetan paperean.

Azkenik, parte hartze bileretan ere iritzia eman ahal izango da. Horiek horrela, eskaera eginda zerbitzua jasoko duten landa eremuko udallerrietan udal webgunean eta udal bulegoetan informazioa eskuragarri edukitzeaz gain, bilerak egingo dituzte proposamenaren inguruan izan daitezkeen galderei erantzuteko. Tolosan ere bilera irekia egingo dute Tolosaldeko Garraio Publikoari buruz eztabaidatzeko. Bilera hauekin batera mugikortasunaren eta garraio publikoaren inguruan zeresana duten eragileekin bilerak egingo dituzte autobus zerbitzu berriaren inguruko iritziak eta ekarpenak jasotzeko.

Aipatu behar da, era berean, jasotako ekarpen guztien balorazioa egin eta gero (azaroak 25 baino lehen), Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamenari ekarpen bateratu bat emango diotela Tolosaldeko udalek.

Sariak eskuratzeko aukera

Bukatzeke, iritzia eman eta horrela Tolosaldeko garraio publikoa hobetzen laguntzen dutenen artean sariak banatuko dituzte. Batetik, 15 euroko karga duten 5 Lurraldebusen txartel zozketatuko dituzte, eta, bestetik, Tolosaldeko 3 merkataritza elkarteentz dendetarako 50 euroko bonoak eskuratu ahal izango dira.



AHTaren aurkako baraualdia aurkeztu zuten, atzo. HITZA

AHTaren aurkako baraualdia egingo du Mugitu! taldeak

Zizurkilen, Villabonan, Anoetan eta Tolosan egingo dute bat 'AHTak platera hutsik uzten digu' ekimenarekin

R.C.

Abiadura Handiko Trenaren kontrako Mugitu! taldeak azaroaren 10etik abenduaren 1a bitarte baraualdiak egingo ditu Bizkaian, Nafarroan eta Gipuzkoan, herrialde bakoitzak astebeteko protesta egingo duelarik. Gipuzkoaren txanda azaroaren 17tik 24ra izango da, eta Tolosaldeari dagokionez baraualdia 3 eguneko izango da, azaroaren 22tik 24ra. *AHTak platera hutsik uzten digu* lelopean izango da baraualdia. Hilaren 22an, ostegunean, Zizurkilen eta Villabonan egingo dute; 23an, Anoetan eta 24ean, larunbatean, Tolosan izango da.

Mugitu! mugimenduak baraualdien ekimenen parte hartzeko gonbita luzatu dio gizarte guztiari, bai baraua egin ez edota bai dinamika horren inguruan ekimenak antolatuz, edota

hauetan parte hartuz ere. Mugitu! mugimenduak bere helburuak lortzeko erabiltzen duen tresna desobedientzia zibila da, AHTaren inposaketari aurre egiteko eta borrokan ahalik eta parte hartze zabalena bultzatzeko, eta hori sustatzeko xedea ere badute baraualdiek. Horretarako, hainbat ekimen burutuko dituzte, non, AHTaren aurka egon daitezkeen jendarteko beste talde zein sektoreen parte hartzea bultzatu nahi duten.

Atzo aurkeztu zuten ekimena, eta hiru asteetan zehar Abiadura Handiko Trenea gelditzeko helburuarekin, makina bat protesta, elkarretaratze, parodia, hitzaldi, egingo dituztela adierazi zuten.

AHTak platera hutsik uzten duela diote: «Koste ekonomiko itzelak, abiadura handiko hipotekak, kalteturiko lurraldearen eta lur emankorren suntsipena dakar, porlanaren eta hormigoien politika gaur egungo atzeraldi ekonomikoaren soluzioa ezin da izan, eta egoera honetara ekarri gaituena da». Era berean, gizarte bazterketa, prekarietatea eta pobrezia bultzatzen dituela adierazi dute.



Tolosaldeko autobus zerbitzua hobetzeko prozesu parte hartzailea ireki du Tolosaldea Garatzenek. I. TERRADILLOS

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



- LAUGARREN URTEURRENA -

**JOXAN
ZABALA
OTEGI**

Zure ingurukoek
bihotzeko saminez
argi izpi baten
zain gaude beti.
BETI ZUREKIN

Zure familia





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosalde.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**



Eizmendi-Garaialde familiako hamabi anai-arrebak, urriaren 20an egin zuten ospakizunean. HITZA

Ikaztegieta Eizmendi-Garaialde anai-arrebek 1.007 urtetik gora batu dituzte. Hamabi anai-arreba dira eta horietako zortzik 80 urtetik gora dituzte. Denak daude osasuntsu eta urteak betetzen jarraitzeko asmoz.

Mila urte eta hamabi anai-arreba

Eneritz Maiz ikaztegieta

Ikaztegieta Aitutukoak moduan dira ezagunak Eizmendi-Garaialde familiako anai-arrebak. Guztira, hamabi dira. Denak bizirik egoteaz gain, guzten artean urte mordoan osatzen dute. Milurteko oso bat pasea dute, hau da, 1.007 urtetik gora batzen dituzte.

Lehen zazpi anai-arrebak, Muñoa baserrian jaio ziren, eta ondorengo bostak, Aitutun. Margari da zaharrena eta 93 urte beteak ditu. Gazteenak, aldiz, Terek, 71 urte ditu. Zortzi anai-arrebek 80 urte-

tik gora dituzte, eta hilabete gutxiren buruan, lehen lau anai-arrebek, -urtebeteko aldea baino ez dute -, eta 90eko muga pasea izango dute.

Urriaren 20an, larunbatean, ospakizun handi baten bueltan, familia guztia elkartzeko ahalegina egin zuten. Laurogeita hamabi kide elkartu ziren ospakizunean. Guztira, 124 badira ere, Ingalaterra eta Suitzatik gerturatu zirenak ere izan ziren. Anai-arrebek, 35 seme-alaba izan dituzte, eta hauek, 45 biloba.

Helburua, familia elkartzeaz gain, hamabi anai-arrebak omen-

tzea izan zen. «Bada zer edo zer 1.007 urte bete izana», adierazi dute Eizmenditarrek.

Hainbeste urtez bizitzearena gurasoengandik ote datorkien galdetuta, ezezkoa adierazi dute senideek: «Ama 72 urte zituela hil zen, eta aita 53 urterekin».

Osasuntsu bizi dira anai-arreba guztiak. Bakoitza bere buruaren jabe da, eta eguneroko bizitzari umorez egiten diote aurre. Gainera, prest daude guztiak beste hainbat urte batzen joateko.

Guinness errekorrean sartzeko ahalegina ere egingo dutela adierazi du Ikaztegieta familiak.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agurak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● **agurak**

Agenda

DEIALDIK

■ **Abaltzisketa.** Azaroaren 4ean mendi irteera egingo dute Larraizetik Igaratzara. Bazkaria ere egingo dute, Abaltzisketako frontoian. 10 euro ordaindu behar da, eta izena emateko 646 28 42 42 (Jon) edo 676 929 660 (Juan Mari) deitu behar da.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Jose Enrike Zeberio tolosarraren margolanak ikusi ahal dira Alegiako erretirodunen tabernan hilaren bukaerara arte.
- **Orexa.** Kultur Hamabostaldia irauten duen bitartean *Mundu batetik* erakusketak ikusi ahal da, udaletxeko ganbaran.
- **Tolosa.** Tolosako Aranburu jauregian Box.A elkartearen *Pornografia* erakusketak azaroaren 9a bitartean, eta Medicus-mundi Gipuzkoak antolatutako

Sexu eta ugalketa eskubideak, eskubiderik gizartiarrenak erakusketak ikusi ahal da azaroaren 3a arte.

■ **Larraul.** Koldo Jauregik bere aho soinuen bilduma jarri du ikusgai urte bukaera bitarte museo etnografikoan. Era berean, Kultur Hamabostaldia bukatur bitarte Karmele Pellejeroren pinturak ikusi ahal dira herriko ostatuan.

ANTZERKIA

■ **Tolosa.** Zikloiaren barruan El Patio taldeak *A manolana* eskaikino du, gaur, 22:00etan, Amartzeten.

ZINEMA

■ **Orexa.** *Gazta Zati Bat* dokumentalaren emanaldia, gaur, Jon Maiaren azalpenekin, 21:30ean, udaletxeko ganbaran, Kultur Hamabostaldiaren barruan.

Mauka GAURKO ESKAINTZA
BERRIA menua dasta ezazu!!
KATTALIN
Prezioa **28€**
www.mauka.eu **berria**

Gozatu
elite mailako saskibaloiak,
eta lagundua BERRIA Taldea
Baskoniaren eskutik.
Baskoniako eta BERRIA Taldearen onen
inguruko klubak berriak, 10 partidu handi
Muztuko erakusketak 180 minutu 30 BERRIA
Taldea laguntzeko izango dira.
CAN LABARRA BASKONI - BERRIA
CAN LABARRA BASKONI - BERRIA
Aizurriren 30an
eskutik gertu!!
www.mauka.eu